

5. KANALAK

KOMUNIKAZIO-BIDEAK

Gure komunikabideak sare sozialen eta publizitatearen bidez izango dira. Halaber, segmentuak adinaren eta sexuaren arabera bereiztea erabaki dugu, hogei urteko pertsona batek ez baititu hamabost urteko baten gustuak; gainera, sexua pertsona bakoitzaren gustuen parte ere izan daiteke. Erabiliko ditugun sareak izango dira tiktok, instagram eta spotify, eta egingo dugun publizitate mota izando da sare sozialetako publizitatea.

BANATZEKO BIDEAK

Ondo dakigun bezala, gure ideia bezeroak beren gustuen arabera entretenitzea da. Entreenimendu-aplikazioak izan arren, gurea ez da soilik bideoak ikusten geratzea aspertu arte; beste modu ezberdin batekoa da, hainbat jarduera egiteko aukera ematen diegu, eta, gainera, jende berria ezagutuko dute, gustuak partekatzeko, eta haiekin batera gomendatutako jarduera horiek egin ahal izango dituzte.